

Elkartasuna susmopean

Koldo SAGASTI

Aurtengo uztailean, Madrilgo Ska-P musika taldeak Alemanian pairatutako zentsura salatu zuen sare sozialetan. Vallecasekoak Municheko Tollwood jaialdian ziren jotzekoak, eta, oholtzara agertu aurretik, polizia germaniarreko bi agentek ohartarazi zieten erreperioko kantetako bat delituzkoa izan zitekeela eta, joz gero, taldekide guztiak atxilo eramango zituztela. Abestiak “Intifada” du izenburua eta kritika zuzena egiten dio Israelgo erregimenari, palestinareei ematen dien tratu kriminalagatik. Ez da harritzekoa. Alemaniako Zigor Kodeak gorroto delitutzat hartzen ditu estatu hebreiarrarekiko kritikak; bost urte arteko kartzela zigorra ezartzeraino.

Horrela salatu du azken hilabetetan Palestinarekiko hango elkartasun

mugimenduak. Aurtun, besteak beste, Nakbaren oroimenezko edo Preso Palestinarren Nazioarteko Eguneako protestak debekatu dituzte Berlinen; eta hainbat kazetari, ikasle eta ekin-tzailek euren aurkako difamazio eta jazarpen kanpainak salatu dituzte, Palestinaren aldeko euren iritziengatik eginak. Horietako azkena Zaid Abulnasser izan da, Samidoun elkartasun sareak Alemanian duen koordinatzailea. Abulnasser Sirian jaiotako errefuxiatu palestinarra da eta erresidentzia baimena kenduko diotela mehatxatu berri dute, bere militantzia politikoagatik.

Bitartean, eta Alemanian sionismoaren aurkako kritiken gainean antisemitismoaren itzala zabaltzearekin batera, Israelgo Lehen Ministroa ko-

munitate juduak European pairatu zuen garbiketaren kontaketa berraztertzen ari da. Hautsak harrotu dituen agerraldi batean, Netanyahu adierazi berri du Hitlerrek, egiatan, ez zuela juduak akabatzeko asmorik eta palestinarrak izan zirela Führerra konbentzitu zutenak. Agintariaren kontakizun sinestezinak Hirugarren Reicheko buruzagiaren erantzukizuna zuritzen du eta Amin al-Husayni lider palestinarrari leporatzen dio juduak sarraskitzearen ideia. Garai zoroak bizi ditugu, erasotzailea erasotu eta erasotua erasotzaile bihurtzen dituzten kontaren garaiak. Baten batek debekutako kanta batean esan zuenez: «Biktimak borrero bilakatu dira, kontu aldrebasa, Palestinako eremuak kolonizatu dituzte, zentzuari eraso». •

Zorionak, Errekaleor!

Maddi
AIESTARAN

Pasa den asteburuan —eta aurretik— lanean aritu zareten auzokide, laguntzaile, teknikari, sukaldari, artista eta lagun guztioi, zorionak. Aurreneko portale hura okupatu zenutenoi, zorionak. Auzo aske batekin amets egin zenutenoi, zorionak. Egunero-egunero auzo aske bat eraikitzen duzuenoi, zorionak. Hala Beldiri, zorionak. Jazarpen polizialaren kontra borroka egiten duzuen militante guztioi, zorionak. Auzolana Pilotalekuari, zorionak. Auzo-boterean sinesten duzuenoi, zorionak. Gasteizko Gaztetxeari, zorionak. Udalaren eta poliziaren era-

soei etengabe aurre egiten diezuenoi, zorionak. Sumendiri, zorionak. Auzokideen arteko zaintzan sinesten duzuenoi, zorionak. Elkarlan honen parte zareten gainerako eragileei, zorionak. Etxeei bizi-bizi eusten diezuenoi, zorionak. Etxebizitza-eskubidearen alde borrokan ari zaretenoi, zorionak. Pareta hutsak kolorez betetzen dituzuenoi, barrutik eta kanpotik, zorionak. Auzotik joan zinetenoi, zorionak. Auzokideoi, zorionak. Hamargarren urteurrena bertan ospatu duzuenoi, zorionak. Proiektuan sinesten duzuenoi, zorionak. Hamar urte egin dituzuelako, zorionak.

Bakarrik ezin da biderik urratu, bakarrik ezin da auzorik eraiki, eta bizi-bizirik sentitu. Hamar urte egiteko, pausoak hamaika egin behar izan dira. Hamaika begi, esku, iritzi, zalantza, ideia, asanblada, auzolan; hamaika kolpe, zalantza, oztopo, kudeaketa, eztabaida; hamaika egia, eta hamaika gezur. Hamar urte egiteko, hamaika lagunak luzatu duzue bidean eskua; eta horiek guztiak nahi zintuzketet zoriondu. Eskuz esku eta atzapar zitaletatik at, elkarlanean eta autogestiotik, auzoak bizirik segituko du beste hamaika urtez. Zorionak, Errekaleor! •